

ADUNA-ZIZURKIL

- Autobus zerbitzua herriraino

ANDOAIN

- San Martin eliza konpontzeko lanak
- Udal zergen salbuespena

BILLABONA

- Eskola kirola martxan

ZIZURKIL

- Alkatearen txabola erreta

ENPRESA

- Azkain Motoak

ELKARRIZKETA

- EHE:
«Euskaldunontzat ez dago justiziarik»

KULTURA

- Komikiaren 100. urtemuga
- Martin Ugalderi omenaldia

1997ko urriaren 17a. 66. Zenbakia. 150 pezeta.

Aiurri

Beterri-Aiztondoko Aldizkaria

Altxor preziatua



EUSKAL MUSIKA

Berria, gaurkotuena,
betirako.

23 disko konpaktu
eta liburuxka bat
abestien hitzekin.



Irailaren 13tik aurrera
asteazken eta larunbatetan

Egunkaria + 550 pta.

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia
"Martin Ugaldere agur eta ohore".
2. GALDEZKA.
Eta zuk, bilizen al dituzu perretxikoak?
3. ADUNA.
Autobus zerbitzua herriraino.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Udal zergen salbuespena.
San Martin eliza konpontzeko lanak.
Eliza zaharreko indusketak.
7. ASTEASU.
Etxebizitza herriak.
- 8-9. BILLABONA.
Eskola kirola martxan.
Joxe Mari Olarra auziperatuta.
10. ZIZURKILU.
Alkatearen txabola erreta.
11. ENPRESA.
Azkain Motoak.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Perretxikoak.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
EHE-eko kideak.
- 16-17. KULTURA.
Komikiaren 100. urtemuga
Martin Ugaldere omenaldia.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. ZER BERRI/LEHIAKETA
20. AGENDA

MARTIN UGALDERI AGUR ETA OHORE



JOSEBA ERKIZIA

Martinen belaunaldiko gurasoak ditugun andoaindar asko modu beretsuan ezagutuko genuen Martin: entzutez, etxean. Politikaren, herrigintzaren, euskal kulturaren arra barrenean ernaltzen hasitako urte haietan, 70eko hamarkada hartan, behin baino gehiagotan izan genuen Martin hizpide etxean. Aitarenekin bideetik ezagutzen hasi ginen. Lagun izatearen eta estimu handian edukitzearen harrotasunez kontatutako istorioak ziren: familia abertzaletako izateagatik erbestera behar izandakoa, idazten ondo zekiena, kultura handikoa, buruz argia, Venezuelako sona handikoa...nik ez dakit zer gehiago omen zen. Itzuli berria zen eta ezkutuan lan egitera behartua zegoen, ordea, eta ezin berri zehatz handirik eduki. Mitoa ote zen?

Bai zera! Idatzitakotik poliki-poliki ezagutu ahala konturatu ginen zein mailatako pertsona zen ezkutuko Martin hura. Gaurkoak baino urte arrunt zailagoetan idatzitakoak irakurri besterik ez dugu jakiteko zein kalitateko kulturagizona den Martin.

Pentsakeran abertzalea, ez inoren kontrako, txikiaren, zapalduaren, itoaren aldekoa baizik. Garai haietan abertzaletasun herritu baten bila ibilitakook aho zabalik uzteko moduko abertzaletasuna zeren haren ideiei, abertzaletasun zabala, solidarioa, mundura irekia, haren belaunaldiko gutxirena bezalakoa.

Ekinbidez letrazalea, kazetaria, idazlea. Kazetari lanetan ere harrigarria da Martin, Venezuelakoetan eta hemengoetan: beti muinera ailegaten dakiena, beti ikuspegi berriren bat erakusten duena. Eta konprometitua: euskarazko kazetaritzaren eta prentsaren zutabea. Idazle gisa, berriz, ipuingile aitzindaria. bete-betean modernoa. kontalari sen agorrezinekoa, edozein kulturatakoekin parekatzeko modukoa. Ipuingintzan, gainera, aitortu behar du baduela niretzat oso dohai berezia, idazle handia izanik ere eta kanpoko gaietaz nahiz gertukoetaz ari dela ere. etxekoa dela sentiarazten didana: bere testuen idazkeran, joseran, etengabe islatzen du gure herriko hizkera. bere belaunaldikoen esamoldez beterik dauzka orriak, etxean nahiz kalean gure aurrekoen beraz, guk baino sen askoz handiagoa dutenei- mila bider entzundako euskararen oihartzunez beteak daude haren istorioak.



Merezi onetz irabazia du herriak aurki eskaini behar dion omenaldia. Gizon handia da kazetari, literaturgile, kulturagizon eta politikari legez. Zaharrek eta gazteek errespetatua. Zahar-gazteen erreferentzia.

Ezagutzen zaila izan dugu haren hurrengo belaunaldikook. baina errazagoa izango dute gurearen hurrengoek. Balio dezala horretarako omenaldia.

Zorionak, Martin!

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia
Erredakzioa: Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernarás **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94
ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



JOATEN AL ZARA PERRETXIKO BILA? EZBERDINTZEN AL DITUZU ONAK ETA TXARRAK?



GREGORIO OLASAGASTI
ENPRESARIOA. ADUNA.

Ez dut perretxikoak biltzeko ohitura-rik. Nire anaia da oso zalea, eta behin edo beste joan naiz berarekin eta oso ongi pasa dut joan naizenetan. Jateko garaian berriz, ez dut inolako aitzakia-rik, gainera, oso ongi prestatzen ditut.

BELEN ALTUNA
IKASLEA. ASTEASU.

Aspaldi, txikia nintzenean, gurasoe-kin joaten nintzen perretxikoak bil-tzera, baina orain ez. Jan berriz, jaten ditut. Ezagutzen ditut onak eta txar-rak diren perretxiko gutxi batzuk.



JUAN JOSE LARREA
LANGILEA. BILLABONA.

Bildu ez ditut egiten, besteek ekarri-takoak jaten ditut. Onddoak bakarrik ezagutzen ditut, besteak ez ditut asko ezagutzen.

MIRARI GOENAGA
LANGILEA. ZIZURKIL.

Jatea baino gehiago gustatzen zait perretxikoak biltzea. Bizioa da nire-tzat perretxikoak biltzea. Onddoak, gibelurdinak, ziza horiak eta kuleto-ak dira biltzen ditudan perretxikoak. Igandero joaten naiz perretxikoak biltzera.



LURDES EZKURRA
ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Ez ditut perretxiko asko ezagutzen. Behin edo beste ibili naiz gibelurdi-nak biltzen, ez dut perretxikoak bil-tzeko afiziorik. Hala ere, perretxiko-ak jateko prestatzen badakit.

JOSE LUIS MAKAZAGA
MEKANIKOA. ANDOAIN.

Perretxikoak zertxobait ezagutzen ditut eta gustokoa dut perretxikoak biltzea. Batzuetan inguruan eta beste batzuetan Nafarrora joaten naiz pe-rretxikoak biltzera. Biltzeaz gain, pe-rretxikoak prestatzea ere gustokoa dut.



Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación


ALFARO
JATETXEA

EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

AUTOBUS ZERBITZUA HERRIRAINO

Aduna eta Zizurkil goiko bizilagunak igo eta jaisteko autobus zerbitzua jari dute martxan. Duela pare bat urte Aduna eta Zizurkilgo Udalak zerbitzu hau jaritzeko asmoa azaldu zuten, eta asmoa egi bihurtu da: bi herri horietatik Donostiara eta Tolosara doan autobusa hartzeko geltokira (Billabonara) joateko garraioa izango da aurrerantzean. Kukute autobusak beteko du Billabonako geltokirainoko ibilbidea, Astea-suko Iñaki Ezkerra gidari duela. Kukute autobusak 17-18 lagunentzako eserlekuak ditu eta 105 pezeta ordaindu behar dira bidaia egiteko, garraio publikoa erabiltzeagatik kobra daitekeen gutxieneko prezioa.

go Udalen eta Gipuzkoako Diputazioaren artean ordainduko dute. Zorrak egin arren, ordea, bi herrietako udalek horriari eskaini nahi dioten zerbitzua dela esan digute Jabier Zabala eta Maria Angeles Lazkano alkateek: "Jendea garraio publiko hau erabiltzera animatzen dugu, eta oraingoz urte beterako jarri dugun arren, zerbitzuak ondoren ere jarraituko duelakoan gaude". Hori bai, zerbitzuaren erabiltzaileek beraiek ezarriko dute zerbitzuaren ordutegia eta bestelako berrikuntzak. Izan ere, erabiltzaileen beharretara egokituko dute zerbitzua behar izanez gero.



ZERBITZU DEFIZITARIOA BAINA HERRITARRENTZAKO EZINBESTEKO ZERBITZUA

Zerbitzua defizitariora izango da eta egingo den zorra Aduna eta Zizurkil-

GELTOKIAK:

Zizurkilen

- 1-Zizurkil goiko plazan.
- 2-Agerreko bidegurutzean
- 3-Zizurkil beheko bidegurutzean

Adunan

- 1-Lardi auzoko bidegurutzean
- 2-Plazan
- 3-Tokialaiko bidegurutzean
- 4-Hidronor-eko bidegurutzean

ORDUTEGIA Astelehenetik ostiralera (abuztua izan ezik)

1. ZERBITZUA

ZIZURKIL 7:20	7:30 INSTITUTORA (TOLOSA)
ADUNA 7:25	7:35 TOLOSARA
BILLABONA 7:30	7:40 DONOSTIARA

2. ZERBITZUA

BILLABONA 9:10	9:00 TOLOSATIK
ZIZURKIL 9:15	9:05 DONOSTIATIK
ADUNA 9:20	9:35 TOLOSARA
BILLABONA 9:25	9:40 DONOSTIARA

3. ZERBITZUA

BILLABONA 12:15	12:10 TOLOSATIK
ADUNA 12:20	12:05 DONOSTIATIK
ZIZURKIL 12:25	12:35 TOLOSARA
BILLABONA 12:30	12:40 DONOSTIARA

4. ZERBITZUA

BILLABONA 14:40	14:40 INSTITUTOTIK
ADUNA 14:45	14:40 TOLOSATIK
ZIZURKIL 14:50	14:35 DONOSTIATIK

5. ZERBITZUA

ZIZURKIL 16:00	16:15 DONOSTIARA
ADUNA 16:05	16:25 TOLOSARA
BILLABONA 16:10	

6. ZERBITZUA

BILLABONA 19:15	19:10 TOLOSATIK
ADUNA 19:20	19:05 DONOSTIATIK
ZIZURKIL 19:25	19:35 TOLOSARA
BILLABONA 19:30	19:40 DONOSTIARA

LARUNBATETAKO ZERBITZUA

1. ZERBITZUA

ZIZURKIL 8:45	9:00 TOLOSARA
ADUNA 8:50	9:10 DONOSTIARA
BILLABONA 8:55	

2. ZERBITZUA

BILLABONA 13:00	13:00 TOLOSATIK
ADUNA 13:05	13:00 DONOSTIATIK
ZIZURKIL 13:10	

Udal

zergen salbuespena

Urriaren 15etik 30era zergen salbuespena eskatzeko epea

Beren beharrei erantzuteko adina dirurik ez duten herriko pentsionista eta langabetuek, udal zergen-salbuespena (tura, estolderia eta zaborrarena) eska dezakete udaletxean. Behin eskaera paperak bete ondoren "Ambrosia Olabide" Gizarte Zerbitzuen Egoitzan, Gizarte Ongizateko Lansaillean, eskaera horiek eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko dituzte interesatuek:

- 1997ko zergen ordainagiriak.
- NA-aren fotokopia.
- Famili liburua.
- Langabetu direnak hori ziurtatzen duen INEM-en agiria aurkeztu beharko dute.
- Pentsionisten ziurtagiria.

Aurreko urteetan zerga salbuespen horietaz baliatu direnek gaurdaino beren egoera ez dela aldatu egiaztatu beharko dute.

Komunitateen eguna ospatuko dute urriaren 18an

Andoaingo Udalak herriko beste talde batzuekin batera Estatu espainiarreko komunitateen eguna antolatu du. Helburua, Euskadi, Extremadura, Galizia eta Andaluziako komunitateak harremanetan jartzea da. Urriaren 18ko ospakizunean, Hogar Extremeñoako "El Miajón de los Castúos" dantzataldeak eta abesbatzak, Andoaingo Triana taldeak, Donostiako Galizia etxeak eta euskal dantza talde batek hartuko dute parte. Talde horien guztien ekitaldiez gain, komunitate partehartzaile bakoitzaren elikagaiak dastatzeko aukera izango dugu Nafarroa plazan.



Xabier Lasca

BERRIAK ZIRI

AMSTRONG, ANDOAINDAR «ALEGREA»

Orain hilabete zendu zaigula Joxe Mari Oiarzabal, 88 urtez. Nortasun adoretuko gizona eta eskusoinulari-tronpetajole karismatikoa. Zeluloidean inoiz filmatu gabeko ixtorio *elektrikoaren* protagonista barojiarra. Ekintzailea, abenturazalea, errebeldea, akrrata. Bere aiurriari, nerbioari erreparatuz gero, A. Larramendi edota Martin Ugaldereen tradizio bitalistakoa, zailantzarik gabe.

Azal zuriko Louis Armstrong-a. Ez zen hura bezain musikari iraultzailea izango, baina berdinduko zion, bai, tronpetari biriketarik haize suhartsu eta jolaskorra ematerakoan, edota publiko-animatzailearen eginkizunean.

Garaiko botere politiko-erlijiosoa eguneko bizimodua, moraltasuna..., hestuan zeuzkanean, ofizio-afizio desafiakorra hautatu zuen gizonak. Zera, goitik ezarritako ordena soziala iraultzea, tronpetaren hotsez. Jose Mari, "Los Alegres" lehen euskal jazz-bandaren sortzaileetakoa genuen, gerraurrez gero. Irratixar batean aditutako jazz, foxtrot, swing eta tango doinuak euskal erritmoekin erreperorioan osatu eta, hor non benturatzen zen taldea, erromeriaz erromeri. Bai abentura filmagarria! Euskal gizarte tradizional erreprimituari jaioterriko zein herbesteko munduko musika modernoak belarriratzearen abentura. Unibertsaltasunaren lekzio bikaina, gaurko *moderno-usteko* askorentzat.

Gaur gaurkoz, konbentzionalismo sozialekiko bere apurzaletasunak, zein bere kultura musikala, bi aspèktuak bizi-bizirik diraute, transmisio faimiliarrari esker. Horratx testigantzaxoa: seme-alabek eta ilobek eskainiriko agurra, bere nortasunaren definitzaile litzatekenea. Zeremoni erlijiosoa *profanatu* nolabait, eta, Jose Mariren omenezkoa bihurtu zuten, ez kristau anonimo batena. Eta aitzazue, guztia txalaparta, biolina, tronpeta eta trikitiaren gozoaz eta alaiaz. Egiazki lurpean ere *genio eta figura* bihurtzerainoko agurra.



XIXORI

BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarreeta, 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

UMAI

OINETAKOAK

Kale Nagusia, 12
BILLABONA
☎ 69 12 61

UME ETA
GAZTEENTZAKO
OINETAKOAK

SAN MARTIN ELIZA BERRITZEKO ASMOAK

URTE BETE DA JOSE RAMON IURRITA SAN MARTINGO APAIZA DELA. ORAIN, ELIZA BERRITU BEHARREAN AURKITZEN DENEZ, BURUBELARRI DABIL LANEAN.

Zenbat denbora daramazu San Martin elizako apaiz gisa?

Irailaren 8an urtea bete da elizbarruti honetan ongietorria egin zidatela.

Andoainera etorri aurretik non izan zara apaiz?

Alpetan "Padres blancos" ordenean egon nintzen. Sebilara joan nintzen ondoren. Sebillaan hogeita zazpi urtez egon eta gero, Erromara joan nintzen ikasten jarraitzeko. 1991an Arragoara joan nintzen, eta iaz, Andoainera etorri nintzen.

Zein asmo edota proiektu dituzu elizarako eta Andoaingo herritarrentzako?

Lehenengo urte honetan ikustea, entzutea eta isilik hausnartzea izan da nere lana. Herritarren eta elizaren funtzionamendua nolakoa den ezagutu ondoren, eliza aldatzeko proiektu bat eraman nahi nuke aurrera. Hau da, gazteak, katekistak, denbora libreko arduradunak eta abarrek eliza aurrera eramateko ardura hartzea nahiko nuke.

Nolatan hasi zineten elizaren egoera aztertzen?

Herrian batzuk eliza egoera oncan zegoela zioten, beste batzuk berriz, eliza bota eta berria egin behar zela zioten. Azterketa bat egitea proposatu zen, eta urtebetez eliza aztertu ondoren, bere egoera hasieran uste zena baino okerragoa dela jakin dugu.



Jose Ramon Iurrita.

Zein da bada egungo egoera?

Eliza arroka gainean zimendatuta dago. Apaiz-etxera begira dagoen arkupea ere arrokan zimendatuta dago baina plaza inguruan dagoen arkupea material ezberdinez dago eginda; ez dago arrokan finkatuta. Erortzeaz ez dagoen arren, egoera ez da oso ona. Arkupearen erdiko zonaldea ere ez dago arroka gainean jarrita. Oso gune labainkorra da.

Zein da egoera horren irtenbidea?

Aukera ezberdinak aztertu ondoren, egungo materialak mantendu eta arriskua duten elizaren guneak ondo zimendatu eta ziurtatzea erabaki dugu. Horretarako, mikropilote batzuk egin behar dira. Mikropilote horiek hormigoiez betetako erdoiltzen ez den altzairuz eginiko hodiak dira. Hodi horiek pilare edota zutabearen azpian jarriko dira, pilare edota zutabeak arroka gainean zimendatu daitezzen. Pilare bakoitzak hiru mikropilote izango ditu, eta horrela, eraikuntza ondo kontsolidatuta geratuko da. Hala ere, egun duen desnibela betirako geldituko da. Arkupea bertan bera ez erortzea ziurtatuko dugu.

Arkupeaz gain, zein egoeretan aurkitzen dira elizako gangak?

Frogak egin ondoren, gangak mugitu egiten direla jakin dugu. Horrezaz gain, mikropiloteak jartzerakoan oraindik gehiago mugitu daitezkeela kontutan hartuta, bertan behera erortzeko arriskua dago. Beraz, lan horien ondoren erortzen ez badira, gangak konpontzeko lanak egin beharko dira.

Zein da lan horien kostua?

Arkupeak ondo zimendatzea lau-pabost milioi balio du. Gangak konpontzea ere beste lau-pabost milioi. Beraz, guztira bederatzi-hamar milioiko gastua izango du. Arkupeak konpontzeko dirua badago, herritarrek bi urtetan zehar emaniko dirulaguntzaren bitartez lan horiek ordaindu ahal izango dira. Beraz, herritarrei eskerrak ematen dizkiet. Gangak konpondu ahal izateko, diputazio eta udalari dirulaguntza eskatu beharko diogu. Horrezaz gain, herritarrek dirulaguntza ematen jarraitu nahi badute ongi etorria izango da.

Noiz hasiko dira lan horiek?

Jada zenbait lan egiten hasi dira. Pilareen barrua ikusi ahal izateko kaliketak (zuloa) egiten hasi dira. Hau da, pilare horiek zertaz eginda dauden eta noraino zimendatuta dauden jakingo dute. Arkupeak zimendatzeko lanak azaroan hasiko dira.

BENITO
HARATEGIA
URDAITEGIA
Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50
BILLABONA

VIDEO CLUB

CLUB de CAMBIO AMETS VIDEO CLUB

- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behea **BILLABONA**

EMBUTIDOS ORMAKI URDAITEGIA

TXERRIKIEN BANATZAILE ETA EKOIZLEA

ENPRESEN ZENTRUA
Ama Kandida 7/g - 307. Moduloa - ☎ 592923
ANDOAIN

ELIZA ZAHARREKO INDUSKETA LANAK

Arto futbolako bigarren txapelketa

Urriaren 18-19an hasi eta ekaina bitartean arto futbola jokatu da astebururo. Frontoia, kiroldegia, eta batez ere, Ondarreta ikastetxe-ko zelaian jokatu dituzte partiduak. Aurten 20 taldek hartuko dute parte; horietako bat emakumezkoen taldea.

Eskola Kirolerako begiraleentzat for- mazio ikastaroak

Buruntzaldea mankomunitateko kirol teknikariak euskara teknikariekin batera, kirol teknikari eta begiraleentzako formazio ikastaroa antolatu du. Era berean, "Kirol medikuntza, metodologia didaktikoa eta gorputz-heziketaren eraginak" izeneko hitzaldiak eta "Kirola zer da?" izenburuko mahai ingurua antolatu dute. Ikastaroak hasi dira jada eta hurrengo hitzaldia urriaren 20an arratsaldeko 19:00etan izango da Urrietako Lekaio Kultur Etxean. Bertan, kirol medikuntza aztertuko da. Informazio gehiago Allurralde kiroldegiko 300147 telefono zenbakira deituz.

Baleta muxutruk

Areski gimnasioak, 4-7 urte bitarteko gaztetxoak baleta egitera animatzeko, baleta ezagutu eta doan praktikatzeko aukera eskainiko diete urrian eta azaroan. Era horretan, baletan aritzeak dakartzan alde onak ezagutaraztea du helburu Areski gimnasioak.

Barrondo pilota- ria munduko txapeladun

Jon Barrondo eta Joxe Ramon Kaxin dira aurtengo zesta-puntako txapeladun berriak. Aranburu eta Jauregi bikoteari irabazi eta gero lortu dute txapela; 35-20 egin zuten. Horrezaz gain, Jon Barrondo andoaindarra Mundialeko jokalaririk onena izendatu dute. Zorionak!!



Gazteak indusketa lanak egiten

Buruntza auzoko eliza eta hilerri zaharraren aztarnak ikertzeko lanak iaz hasi ziren. Iaz bilatutako informazioa osatzeko aurtengo indusketa lanak oso emankorrak izan dira (zenbait gorpuzkin aurkitu dituzte). Aranzadi elkarteak kide eta indusketen zuzendaria den Alex Ibañezen esanetan, aurtengo ikertu duten gunca zabalagoa izan denez material eta gorpuzkin gehiago agertu dira: "Elizaren barruan eta kanpoan zortzi pertsona nagusien eta bi haurren gorpuzkin eta beste batzuren giza eskeletoen zatiak agertu dira. Horrezaz gain, txanponak, kateak, eratzunak, gurutzeak eta abar aurkitu ditugu". Jasotako informazioa Aranzadira eraman eta materiala garbitu, siglatu, klasifikatu eta ikertu egingo dute. Aranzadi elkarteak egin duen lanaren eta bilatutako materialaren berri emango dio Udalari. Izan ere, Udala eta Diputazioaren dirulaguntzaren bidez egin dira indusketa lan horiek.

Aurtengo indusketa lanen helburua elizaren burualdea bilatzea izan da besteak beste, hau da, elizako tipografia guztia osatzeko falta zen eremua aztertzea. Elizaren barne eremua zabaldu ondoren, barne indarramenduak nolakoak, zein garaikoak eta zein materialez egindakoak ziren aztertu dute. Horrezaz gain, elizaren kanpokaldean egiten ziren ehorketak nolakoak ziren, zein seriazio duten eta gorpuekin batera lurperatutako materiala aurkitzea izan da lanen xedea.

Aurtengo herriko eta inguruko beste herrietako gazteen kolaborazioa izan dute Aranzadi elkarteak, 11 gazteena guztira. "Eskerrak ematen dizkiet gazte horiei beren denbora eskaini eta indusketa lan honetan lagundu dutelako" adierazi digu Alex Ibañezek. Herrietarrek indusketak bertatik ezagutu eta ikusteko aukera izan dute, baina aurrerago, txostena garatu ondoren, hitzaldia eta diapositiba emanaldia eskainiko dute herritarrentzat.

Hona hemen indusketa lanetan jardun duten hiru andoaindarretik biren esperientzia:

Ana Isabel Rodríguez.
22 urte, Historian lizentziatua.

Nolatan animatu zara indusketa lan baneu egitera?

Alexek, indusketa lanetan parte hartzeko gonbidapena egin zidan eta klaserara joan beharrik ez nuen animatu egin nintzen.

Inoiz borrelako lanik egin al duzu?

Bai. Azken lau urtetan, uda partean, Andoain, Zarautz, Araba eta inguruko herrietako indusketa lanetan hartu dut parte; beraz, lehendik ere mundu honetan sartuta nengoen, piska bat bada ere.

Zer ikasi duzu bi aste hauetan?

Nahiz eta terminologia eta lan egiteko modua zertxobait ezagutu indusketa bakoitza eta zuzendari bakoitzaren lan modua ezberdina da eta guztietan zerbait berria ikasi ohi da.

Aparkalekuak
Elizmendirin

Berehala hasiko dira aparkalekuak egiteko lanak Elizmendi auzoan. Azaro amaierako 21 kotxe aparkatzeko lekua edukiko dugu Elizmendiko txikien eskola eta egin berri dituzten etxebizitzaren artean.



Etxeak eraikitzeko lanak egiten.

**ETXEBIZITZAK
EGITEKO LANAK**

Udaletxe atzeko zelaian 32 etxebizitza egiteko lizentzia emana du Asteasuko Udalak, eta ondorioz, behin lizentzia eskuan edukita, etxebizitzak egiteko lanak hasi dira. Oraingoz, 20 etxebizitza egiteko lanak egiten hasi dira. Hogeita hamabi etxebizitza horietatik 12 izango dira babes ofizialekoak, eta oraindik lanak egiten hasi ez diren arren, guztiek badute dagoeneko beren jabea. Lehen aipatu ditugun 20 etxebizitzetatik gutxi dira salgai daudenak, eta horietatik 16 etxebizitza pisu normalak izango dira eta beste 4 etxebizitza duplex modukoak. Aipatu beharrekoa da Elizmendirin 7 etxebizitza berri egiten ari direla eta Kabela baserriaren tokian beste 8 egiteko lanak hasi direla. Azken hauek ez dira babes ofizialekoak izango, baina gerora, Ibarrazpi atzeko lurak subastan jarri eta enpresa batek etxebizitza gehiago egiteko ardura hartu ondoren, babes ofizialeko etxebizitza gehiago egiteko aukera izango da beharbada.

**GUTXIAN 35 ETXEBIZITZA BERRI
ASTEASUN**

Orohar, udaletxe atzeko etxebizitzak, plazakoak eta Elizmendikoak eraikitzez amaitutakoan, 35 etxebizitza berri izango dira Asteasun, eta hori 98. urterako egitea pentsatzen da. Era berean, babes ofizialeko 12 etxebizitzak egiten gutxian hasiko direla uste da. Etxebizitza gehiago egiteko lizentziak eman ditu udalak, eta guztira, 51 etxebizitza egingo dira.

**➔ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDA-
LI GURE EGOITZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!**

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

Helbidea:

Kodea: Herria:

Lanbidea: Jaiotze data:

Etxeko[☎] : Laneko[☎] :

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Kontu korrontearen zenbakia:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Tokia, data eta izenpea:

Iñigo Guridiren errugabetasunaren alde

Iñigo Guridi billabonatar gaztearen errugabetasuna eta bere askatasuna eskatzeko taldea sortu da

Billabonan. Beren esanetan Iñigo gartzelan egotearen arrazoiak gertaeren inguruan eginiko muntai poliziala eta komunikabideek emandako bertsioak dira. Gauzak horrela, bertsio horren

aurka eta Guridiren errugabetasunaren alde, sinadurak biltzen ari dira; oraingoz, 4.000 sinadura bildu omen dituzte. Era berean, bonolaguntzak jarri dituzte salgai Iñigoren beharren kostuari aurre egiteko (bisitak e.a.).

Bilera irekiak egiten dituzte astean behin, eta beraz, herriko talde eta bizilagun guztiak bileretan parte hartzera gonbidatu dituzte. Oraingoz, herriko koadrila eta elkarte asko ari omen dira parte hartzen, Aizkardi mendi taldea eta Fleming ikastetxea, besteak beste.

Gervasio Agirre 10 urte gartzelan

Gervasio Agirre billabonatar presoak 10 urte daramatza preso.

1987.go urriaren 1ean atxilotu eta lege antiterroristapean bost egunez eduki ondoren, urriaren 6an gartzelan sartu zuten. Atxilotu zutenean torturatu egin zutela adierazi digute Amnistiaren Aldeko Batzordekideek. Egun 1.e-ongo espetxean dago Agirre, eta bost espetxe ezberdinetan egon da azken honetara eramanez aurretik.

Gervasio Agirre gartzelan dagoen 10. urtea dela eta, 100 pertsona bildu zituen manifestazioa egin zen hilaren lehenean Billabonan.



ESKOLA KIROLA

Urtero bezala Billabonako Udalak eta herriko ikastetxeek Eskola Kiroleko ekintzak antolatuta dituzte. Ekintza horietan 8-16 urte bitarteko neska-mutilak ari dira parte hartzen. Kirol ezberdinetan osatu diren talde guztiek begirale edo entrenatzaile bana dute, eta ordaindu beharreko diru kopurua 1.600 pezeta dira ikasturte osorako. Entrenamenduak, gutxienez, astean behin dira eta horietako batzuk, gainera, eguerditan. Azken aukera hau Ernioabeako ikasleei zuzenduta dago batik bat.

BEDERATZI KIROL TALDE

Kirol ezberdinak egiteko bederatzita talde osatu dira. Kirol bakarra landu-

ko duten 5 talde egin dira: Aizkardik antolatuta hilean behin mendira joateko taldea; Behar Zana elkartekoek astean bitan egiten dituzten pilota entrenamenduetan osatzen duten taldea; boleibolean jokatzeko osatzen duten neskek osatzen dituzten bi maila ezberdinetako bi taldeak; eta azkenik, mutilek areto futboleko jokatzeko osatzen duten taldea. Aipatu ditugun talde horietan hamahiru urtetik gora dituzten gaztetxoek hartzen dute parte. Hamabi-hamahiru urtetik beherako haurrak beste lau talde ezberdinetan ari dira kirola egiten. Taldeak adinaren arabera banatu dituzte eta honako kirol hauek egiten dituzte: futbola, areto futbola, saskibaloia, boleibola, pilota, igeriketa, eskubaloia eta atletismoa.



Kirola eginez ondo pasatzeko aukera

Loitzo
Etxeko Osagaiak
LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK
Errota kalea. - 3 69 21 35 BILLABONA

FRANCISCO MENDIKUTE
Harategia

Kaletxiki, 15 - 59 02 58 - ANDOAIN

**PILOTA ESKOLA
MARTXAN**


Behar Zana elkarteko pilotariak hasi dira Gipuzkoako pilota txapelketarako prestatzen. Partiduak ia larunbatero izaten dira, eta eskuz binaka nahiz banaka, paleta larruz, paleta gomaz eta joko garbiko partiduak jokatzen dituzte Béhar Zanako pilotari gazteek, bakoitzak bere mailan, noski. Era berean, pilotan jokatzen ikasi eta aritu nahi duen gazteak asteazken edo larunbat batean Amasako frontoira igo besterik ez du egin behar. Izan ere, pilotan jokatzen ikasteko eskolan 40 haurrek hartzen dute parte oraingo, eta partaide gehiagorentzat tokia bada-goela esan digute arduradunek.

**PILOTA TXAPELKETA
GEHIAGO**

Enrique Abril izeneko errebote txapelketa urriaren 19an amaituko da. Igandero jokatu dituzte partiduak Euskal Herriko 16 taldek, horien artean Billabonako bi taldek. Finala Zubietan izango da. Udaran lehiatu zen Munduko Kopan berriz, aipatzekoa da Behar Zanako pilotaria den Lopetegik txapeldunorde postua lortu zuela xarez jokatu zuenean.



Roberto Garate



**AMASAKO
OILASKO JOKOA**

Oilasko jokoa zen eta da Amasako jaietako gauzarik aipagarriena. San Martinetako hirugarren egunean egiten zen oilasko jokoa, eta orain bezala, bi talde-tan banatuta joaten ginen oilaskoak biltzera: batzuk Andoain aldera eta beste batzuk Irura eta Zizurkil aldera. Goizean goiz Billabonako Izkiña tabernan kafea hartzen genuen oilasko bilketa hasi aurretik. Nik 1928. urtean, bederatzi urte nituenean eta aitona lagun, hartu nuen parte lehenengoz oilasko jokoa. Orduan hamar mutikok bakarrik hartzen zuten parte eta bakoitzak lepoa moztu zuen oilaskoa etxera eramaten zuen. Gainerako oilaskoak jateko afaria egiten genuen, eta gogo onez jaten genituen oilasko guztiak, orain baino behar handiagoa genuen eta! Baina urte batzuetan debekatu egin zuten oilasko jokoa. Haurrek ikusteko gauza ez zelako debekatu zuten garaiko agintariek joko hau, eta Goardia Zibila etortzen zenez oilasko jokoa debekatzera, ezin kontra egin! Gerora, ordea, utzi zuten oilasko jokoa egiten, bestela zezenketak ere debekatu beharko zituzten eta! Garai hartako jaietan txistuaren eta aho-soinuaren doinuaren ibiltzen ginen dantzan, ez zen gaur egungo soinu zalapartarik orduan. Bertso saiorik ez zen izaten, politika arrazoiengatik ez baitzuten uzten.

**JOXE MARI OLARRA
AUZIPERATUTA**

Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa egiten ari da eta ondorioz, Mahai Nazionalako kide den Joxe Mari Olarra billabonatarra epaitu egingo dute. Epaiketa hori salatzeko ekintza ugari antolatu dira Billabonan eta Tolosaldean. Horien artean, Gurea zinemaretoa bete zuen ekitaldi politikoa eta herritarren autoinkulpazioak dira aipagarrienak; 900 pertsonatik gora autoinkulpatu dira Tolosaldean. Joxe Mari Olarrak epaitegira harro eta sendotasunez doala esan zuen, "euskar independentisten errepresentazioa dugulako eta herri honi hitza eman eta bakea ekarriko dion bidea zein den azaltzeagatik epaituko baikaituzte". Bestalde, Billabonako Udalak epaiketaren aurkako mozioa onartu du.



ALTEROFILIA EGITEKO GELA BERRIA

Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasleek eskulanak egiteko erabiltzen zuten gela alterofilia egiteko gela da egun. Batis Kortajarena entrenatzailearen taldeak bertan entrenatzen du egunero-egunero, eta egia esan, lehen entrenatzen zuten gela baino erosoagoa da oraingo hau. Izan ere, 25 lagun inguruk entrenatzen dute arratsaldero eta leku handia eta haliabide ugari behar dituzte beren prestakuntza behar bezala egiteko. Orain entrenatzen duten gelan muskulazioa lantzeko aparailua daukate. pesak egiteko euskarri gehiago izateaz gain. Hori guztia Espainiako selekzioari eta jasotzen dituzten dirulaguntzei esker lortu dute.

Hala ere, behin-behineko entrenamendu tokia da gela berri hau, Billabonako kiroldegia egitean bertara joango

baitira entrenatzera. Horrek, ordea, ez du esan nahi oraingo gela bertan behera utziko dutenik kiroldegia egin ondoren: haurrei alterofilia irakasten jarraituko du Batisek bertan. "Gazte-

ek euren kabuz entrenatzen dute, ondorioz, gainera gehiago gustatzen zait, nik hasi berriei irakasten jardungo dut hemen", adierazi digu entrenatzaileak.



Aloña Ipintza

ETXEBIZITZAK

Babes ofizialeko etxeak eraikitzen hastekoak omen dira Zizurkilen; baten garaia! Azken urte hauetan, salbuespenak salbuespen, etxetxoak besterik ez dira eraiki gure herrian.

Egia da bizitza bakarreko edo biko etxe hauek herriaren itsura asko hobetzen dutela, "langile" etxeak gehienetan oso estetikoak ez diren bezala. Baina bere alde txarra ere badute, norik ordaindu ote ditzake prezio borobil bezain potolo horiek? Egoera ekonomikoak onera jo duela dioten arren, kallean ez da hori sumatzen. Gutxi batzuek soilik dute dirua soberan, gainontzekoak poltsikoan zuloa ote dugun pentsatzen hasiak gara.

Argi dagoena da orain arteko eraikuntzak gizarte sektore handi bat baztertuta utzi dutela, eta badi-rudi azken proiektu honi esker, Zizurkilen etxe bat erosi ahal izatea bideragarria izango dela.


Hala ere, ezin hasiko gara ezer ospatzen, proiektuak asko izaten baitira, eta kasu honetan, paperak sinatzeko baitaude oraindik.

ALKATEAREN TXABOLA ERRETA

HB-KO ZINEGOTZIAREN ETXE AURREAN KONZENTRAZIOA EGIN ZEN

Urriaren 6an erreta agertu zen Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkatearen txabola. Bere iritziz, sutea eragindakoa izan da eta zerikusia du azken hilabeteotan herrian izan diren istiluekin eta jaso diuzten mehatxuekin. Gauza bera diote hilaren 9an udalbatzaraldira etorri ziren gainerako

alderdietako zinegotzi guztiek, HBkoek izan ezik, azken hauek ez baitzuten batzarrean parte hartu. Udalbatzak alkateari elkartasuna adierazi, sutea eragindakoa izan dela baieztatzeaz gain gaitzetsi, eta gainera, HBren jokaera salatu du herritarren elkarbizitza suntsitu omen duelako. Era berean, HBren isiltasun konplizea salatu dute zinegotziek eta gertaerak Maria Angeles alkate izendatzeak sortu dien inpotenziaren ondorio direla uste dute. Alkateak eskerrak eman dizkie alderdikideei eta herritarrei "elkartasuna adierazteagatik eta laguntzeagatik. Gainera, nire alabaren ikas-kideei eman nahi dizkiet eskerrak txabola txukuntzen lagunduko digutelako", adierazi zuen alkateak. EAJ-PNVeko hainbat buruzagi bildu ziren aipaturiko udalbatzarrean, eta behin batzarra amaituta, "Isilik dagoena errudun" jartzen zuen pankarta aurrean zutela manifestazioa egin zuten. Manifestazioan Xabier Pellejero HB-ko zinegotziaren etxeraino joan ziren eta bertan konzentrazioa egin ondoren, beren protesta bukatutzat eman zuten.



Azkain Motoak

MOTORRA EROSTEKO ARRAZOIAK IZAN ARREN, AZKENALDIAN GAZTEEK GEHIEN EROSTEN DUTEN IBILGAILUA SCOOTERRAK DIRA. EROSLEEN ARTEAN, HARRIGARRIA BADA ERE, EMAKUMEAK DIRA GEHIEN. AZKAIN MOTOAK EZAGUTZEKO BERTAKO LANGILE ETA NAGUSIA DEN MARTIN AZKARAIREKIN IZAN GARA.

Zer da Azkain motoak enpresa?

Azkain motoak motorren saltokia, tailerra eta garbiketa tokia da. Motorrentzat beharrezko den guztia saltzen dugu. Motorrak bigarren eskukoak edota berriak dira. Horrez gain, motorren azterketak, erueda aldaketak, errebisioak, eta abar egiten ditut. Pintaketa lanak ere egiten dira, norbaitek bere motorra pertsonalagoa bihurtu nahi izanez gero, karrozeroarekin harrimantetan jarri ondoren motorra jabearen gustura pintatzen dugu. Lau urte dira Azkain motoak ireki nuela.

Zein moto markarekin egiten duzu lan?

Moto japoneseekin egiten dut lan gehienbat. Azkain motoak ireki aurretik Yamahan egin nuen lan eta etxe ona da. Gauzak horrela, munduan gehien saltzen diren motoak Aprilia, Honda, Yamaha, Kawasaki eta Suzuki marka japoniarrak izateaz gain, marka italiar, frantses, alemaniar eta gainerakoeekin ere lan egiten dut.



Zein da motor berri baten prezioa?

Scoterra bada 200.000 pezeta inguru ordaindu behar duzu. Zilindrada erdiko motorra bada 700.000 pezeta kostatzen da eta zilindrada handiko motor batek 1.200.000 pezeta balio du.

Zein zainketa mota behar du motoak?

Motoa ondo zaintzeko lan asko egin behar da, dirua gastatu beharra dago. 5.000 kilometro egitean azterketak egin, arazoren bat duenean piezaren bat konpondu edota aldatu... Lasterketarako motorra bada, beti puntu onean dagoela ziurtatu behar duzu.

Zein da motor eroslearen perfila?

Orain arte motorra erosten zutenak 20-22 urteko mutilak izan ohi ziren: Kotxea erosteko dirurik ez zuten gazteak. Orain berriz, gero eta neska gehiago dira motorra erosten dutenak.

Erosten duten motorra berriz, Scoterra da. 1991. urtean moto handiak saltzen ziren, orain berriz, Scoterra dago modan. Gehienek hobbi-gatik, kapritxoagatik erosten dute, gutxi dira lanarengatik erosten dutenak.

Bestelako erakusketa, txapelketa e.a.-rik antolatzen al duzu?

Azkain motoak ireki eta lehen urtean zenbait moto erakusketa egin nituen, baina lan asko egin behar da eta nik bakarrik ezin dut lan hori guztia egin. Txirrindularitza profesionalerako lasterketako babesle gisa nabil. Marzot andoaindarrak ETBko kamara eramaten du eta bere motorrean darama nire patrozinoa. Hurrengo urterako badut moto erakusketa bat egiteko asmoa. Horrez gain, motorrerako akzesorio aukera handiagoga jartzekotan naiz.

Joxe Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

Orremendi
Kirolak

KIROLA EGITEKO ETA ZURE ATSEDENALDIRAKO

JUAN BAUTISTA ERRO, 2 - TELF: 59 18 06 ANDOAIN

N **NEGOCIO MOTOTUR**

Aseguruak **ARGENTARIA**

Anaia Forastaran

Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34

ZIZURKIL

BORDA
Jatetxea

Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN

☎ 59 28 60 Faxe: 59 36 91

PERRETXIKOAK, ALTXOR PREZIATUA



Amanita muscaria
Bizkarroia
Jangarria

UDAZKENA IRITSI DA ETA BERAREKIN BATERA PERRETXIKOAK BILTZEKO GARAIA. ASTEBURUETAN OTARRA HARTU, MENDIRA IGO ETA PERRETXIKO BILA DABILTZAN PERRETXIKOZALEEN KOPURUA ITZELA IZATEN DA. GUZTIEN ASMOA GARAIKO PERRETXIKOAK JATEA DA. BADA PERRETXIKOAK BILDU ETA GAINERAKOEI SALTZEN IBILTZEN DENIK, HALA ERE, INORK GUTXIK AITORTZEN DU HORRELAKORIK. IZAN ERE, GEHIENEK ETXEAN ETA LAGUNARTEAN JATEKO BILTZEN DITUZTE GURE BASOETAKO ALTXOR PREZIATUAK DIREN PERRETXIKOAK.



Amanita caesarea
Gorringoa
Oso toxikoa

Perretxikoak bere garaia izaten du, udaberrietik udazkenera bitartekoa hain zuzen. Beraz, perretxikozaleak direnak hasiak dira perretxikoak biltzen, edota gutxienez bilatzen. Euskal Herrian perretxikozaletasun handia dago eta horren adierazle dira azken urteotan perretxikoen inguruan argitaratu den liburu kopuru ugaria. Kalitatezko argazki eta testuez osatutako liburuak dira eta argazkiaren garrantzia ezinbestekoa da perretxikoak nolakoak diren ongi ezagutzeko eta onak eta txarrak bereizteko.

Eloi Artola-zabal andoaindarrak urte asko daromatza perretxikoak biltzen eta berarekin bildu gara mundu horren berri izateko. Aitak perretxiko ezagunak zeintzu ziren erakutsi zion umetan, eta berandua go, Usurbilgo Udarregi ikastolan irakasle gisa lanean zebilela, Daniel Palacios mikologoarekin, Aranzadi-



Russula emecosa
Gibeludina
Jangarria

ko zuzendararekin eta Usurbilgo Tripaki taldeko lagunekin batera perretxiko asko ezagutu eta ezberdintzen ikasi zuen. 80 perretxiko mota ezberdin jan ditu, baina ondduak biltzen ditu bakarrik, sei onddoko ezberdin. Hala ere, tarteka, aurkitzen nahiko zailak diren perretxikoak ere biltzen ditu.

SALEROSKETA

Perretxikoak jateko batzuek erosi egiten dituzten bezala, beste batzuek horiek saltzen ibiltzen dira. Beste lanbide bat izan arren, perretxikozaletasuna dela eta, asteburuak perretxikoak biltzen pasatzen dituzte, geroago, kontaktuak dituzten eta ezagunak dituzten bezeroei saltzeko asmotan. Perretxikoen munduan dabilzanek, denek dakite nortzu diren horiek baina inor ez da auzartzen, ezta saltzailea ere, beren izena publikoki agertzen. Izan ere, perretxikoa oso altxor preziatua da eta

**PATXINE
JATETXEA**

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL
SUKALDARITZA ETA ETXENKO POSTREAK
Errementari, 1 ☎ 69 10 25 - ASTEASU

Taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TELEF. 59 35 49

MIRARI
ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
• ☎ 590162

ANDOAIN

inorri ez zaio intesetaszen berak ezagutzen duen toki hori perretxiko biltzailez

“ZEIN PERRETIXIKO DEN ZIUR JAKIN GABE EZ DA PERRETIXIKOAK BILTZEA GOMENDATZEN, EZ BEHINTZAT JATEA”.

perretxikoak erosi, garbitu eta txukun txukun kaxetan prestatu ondoren, jatetxe eta bezero partikularrei saltzen dizkie. *“Onddoak, Amanita Caesarea, gibelurdina, xixa horia eta beste hainbat perretxiko ezberdin saltzen ditut”.* Salneurriari dagokionez, maiatzeko xixa kiloak 16.000 - 18.000 pezeta balio duen arren, gero 1.500 pezetara jaisten da, ondduak 2.000 eta 2.500 pezeta balio du eta gibelurdinak 2.000 pezeta inguru.

PERRETIXIKO JANA

Biltzeaz gain, bada perretxikoak prestatzen abilitadea duenik. Andoaingo Borda jatetxeko sukaldariak perretxikoak entsaladan prestatzen



Calocybe gambosa
Udaberriko xixa
langarria

ditu, guarnizio gisa eta perretxiku-nahaskia egiteaz gain. *“Bezeroek oso gustura jaten dute. Perretxiko garaia ez izan arren, aurrez izoztutako perretxikoak prestatzen ditugu urtean zehar”.*

PERRETIXIKOAK EZAGUTZEN

Perretxiko familia asko dago, eta beraz, denak ezagutzea ia ezinezkoa da. Hori dela eta, perretxiko biltzaileek, normalean perretxiko ezagunak bakarrik biltzen dituzte. Zein perretxiko den ziur jakin gabe ez da perretxikoak biltzea gomendatzen, ez behintzat jatea. Izan ere, batzuetan perretxikoak itxura ona izan arren, gerta daiteke jangarria ez izatea.

Bestalde, hasieran pozoina duten perretxiko batzuk jatean ez da ezer gertatzen. Izan ere, beroarekin perretxiko batzuen pozoina desagertu egiten da. Perretxikoen inguruan uste falsu asko zabaldu da, urak eta hotzak jangarria den perretxikoa pozoindu egiten duela, urritik aurrera perretxikorik ez dela jan behar, edota bareak jandako perretxikoa ona dela. Hori guztia ez da zientifikoa, beraz, ez da egiazkoa. Eloi Artolazabalen esanetan zientifikotasuna perretxikuak ondo ezagutzea da: *“Zein perretxiko den jangarria eta nola prestatu behar den jakitea garrantzitsua da. Ezagutzen dituen perretxiko horiek bildu behar ditu jendeak, badazpate ere”.*

Oharra: Perretxikoen inguruan adituak direnek ez dute gustoko pista handirik ematea, beraz, milesker erreportaiak honetarako informazioa eman duten guztiak.



Benetan oderra onddoak

Zapoa onddo kremarekin



Oragakiak:

- Txalota,** (tipula gorrixka)
- gurina,**
- onddoak,**
- ardo zuria,**
- esnegaina,**
- zapoa eta**
- irina.**

Onddoak garbitu eta zaitu.

Txalota eta gurina sutan jarri. Bigundu eta gero onddoak gehitu eta ardo zuri txorrotada batez egosten utzi. Egositakoan esnegain pixka bat gehitu eta berriz irakin egin arte ilxoin.

Zapoa irinetan pasa, gatz eta piper pixka bat bota eta onddo saltzarekin nahastu.

On egin!

ANDOAIN

EHE:

“EUSKALDUNONTZAT EZ DAGO JUSTIZIARIK”

UNAI BALDA, AITZIBER LASA, ESTIBALITZ AIZURU ETA EKHIÑE MENDIZABAL ANDOAIN-DARREK USURBIL ETA OIARTZUNGO BESTE BI LAGUNEKIN BATERA SEI ASTEBURU PASA BEHARKO DITUZTE GARTZELAN. HORREZAZ GAIN, DAGOKIEN ISUNA ORDAINDU BEHARKO DUTE. HORI DA BEHINTZAT BERGARAKO 4. INSTRUKZIO EPAITEGIAK EMAN DUEN EPAIA, ETA ORAIN, ERABAKI HORREN AURKA JARRI DUTEN ERREKURTSOA ZERTAN GELDITUKO DEN ITXAROTEN ARI DIRA EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ-EKO KIDE HAUEK.



Epalketa aretotik ateratzen.

Zergatik auziperatu zaituztete? Martxoan Bergaran egiten ari ziren epaiketa batera sartu eta eten egin genuen guztia erdaraz burutzen ari zelako. Ondorioz, eta ordenu publikoaren aurkako falta egin dugulakoan, sei asteburu gartzelan pasatzera eta zehazteke dagoen isuna ordaintzera zigortu gaitu epaileak.

“PRAKTIKAN, GEZURRA DA EUSKARA OFIZIALA DELA”

Nola eten zenuten epaiketa? Guk ez genekien zein epaitzen zuten, edozein epaiketara sartu ginen. Epaiketa, noski, erdaraz ari

zen egiten eta euskaldunontzat ez dago justiziarik oihukatuz kartelak atera genituen. Ertzainek aretotik atera eta identifikatu egin gintuzten.

Zein helburu izan du ekintza

horrek, hau da, epaiketa eteteak?

Euskal Herrian euskaraz egiteko

eskubidea dugula aldarrikatu nahi genuen, eta beraz, epaiketa batean ere eskubide hori bermatu behar dugutela adierazi nahi genuen egungo justizia administra-

zioa salatuz, guztia gaztelan egiten baitu. Finean euskaldun batek gaur egun euskaraz bizitzeko dituen arazoak argitara eman nahi ditugu. Izan ere, administrazioak ez du betetzen Konstituzioak berak onartzen duen eskubidea, hau da, gezurra da euskara ofiziala dela zeren eta ez da eskubide hori betetzen.

Horren ondorioa izan da, beraz, zuen aurkako epaiketa eta sententzia. Gainera, zuen aur-

kako epaiketa ere eten egin zenuten, ezta?

Bai, horrela da. Ordenu publikoa asaldatzeagatik, martxoko epaiketa eten alegia, sei asteburu gartzelan

igaro eta isuna ordaindu behar dugu. Eta sententzia hori erabaki zuen epaiketa ere eten egin genuen, guk deliturik ez baitugu egin, eta gainera, erdara hutsean egiten ari zen epaiketa.

Epaiketa irailean izan zen eta guk joan aurretik argi utzi genuen deliturik ez ge-

“OSO LARRIA DA ESKUBIDE BAT ALDARRIKATZEAGATIK GARTZELA ZIGORRA EZARTZEA”

nuela egin eta epaiketa hori ez genuela onartzen. Beraz, epaileak behin kalabozotatik igo ondoren -gure epaiketa etetean bertara eraman gintuzten ertzainek- bigarren aukera eman eta euskarara itzultzeko itzultzailea jarri zigunean ere, ez genuen epaiketan parte hartu. Izan ere, itzultzaileak atzeritarrei jartzen dizkiete, eta guk, euskaldunak izanik, hemengo administrazioako justiziarekin harremanak zuzenean eta bitartekorik gabe izateko eskubidea dugu.

Onartuko al duzue zigorra?
Gure gogoz kontra. Gure ustez ez dugu inolako deliturik egin, euskaldunontzat justizia eskatu besterik ez dugu egin. Gure abokatuak errekurtoa jarri du sententziaren aurka, itzultzaileak ez baitu guk euskaraz aritzeko dugun eskubidea bermatzen, epaitegian bitartekorik gabe ulertuak izateko eskubidea izan arren ez baita bete, eta beraz, indefentsio egoeran geunden gure epaiketan. Horregatik,



epaia bertan behera uztea eskatu du gure abokatuak. Gainera, abokatuak ere planteatu egin du, hau da, ez du prozesu judiziala onartzen eman den indefentsio egoera dela eta. Aipatu beharrekoa da oraindik ez dakigula gure epaiketa eteteak zein ondorio ekarriko dituen.

Ekintzak, eta orobar, bazi duzuen kanpainak izan al du eus-

kalgintzaren inguruko jendearen eta erakundeen elkartasun zehurririk?

Bai, izan du. Izan ere, auzi hau ez da EHErena soilik, gizarte osoarena baizik.

Hau da, euskaldun guztiok ditugu arazoak euskaraz bizi-tzeko orduan. Elebitasuna konstituzioak onartzen du,

euskara hizkuntza ofiziala dela, baina hori ez da be-

tetzen. Larri da oso hori salatzeagatik gu zigortzea.

Bien bitartean zuek zuen lanean jarraituko duzue...

Kanpaina honekin aurrera jarraitzea da gure asmoa, hasi besterik ez gara egin. Jendea egoera honetaz informatzea eta norberak euskaldun bezala dagozkion eskubideak aldarrikatzea da gure helburua.

**“NORBERAK,
EUSKALDUN BEZALA,
BERE ESKUBIDEAK
ALDARRIKATU BEHAR
DITU”**

ORTE
CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

URRIAN 60 URTE
GORAKOENTZAT ESKAINTZA
ARMAZOIA + KRISTALAK=
8.500 PTA

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17

Ngeltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

ALOTZ
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - % 59 07 06
ANDOAIN

AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

KOMIKIAK 100 URTE



Komikia marrazkia eta hizkuntza idatzia erabiltzen duen artea da, hau da, ilustrazioa hizkuntza idatziarekin nahastuz lengoia mota berri bat asmatu duen artea da. Komikia duela 100 urte sortu zela baieztatzeko ez da, ordea, nahikoa komikiaren definio hau. Izan ere, marrazkia eta hizkuntza idatzia batera erabiltzen duten adibide asko aurki daitezke historian zehar, baina ez komikirik. Komiki bakoitza mila aldiz errepikatzen da mende honetako asmakizun diren inprenta eta errotatibari esker, eta horixe da hain zuzen bere ezaugarri nagusienetako bat. Gainera, ikuslego handi batengana iristen den artelana da.

Mende honetan asko garatu den artea izan arren, komikiak haurren kontuak direla uste dute askok, eta beraz, Billabonako erakusketaren asmoetako bat jende helduari arte honen berri ematea eta komikiaz disfrutaraztea da.

KOMIKIA EUSKAL HERRIAN

Mende hasieran hasi ziren Euskal Herriko egunkariak komikiak argitaratzen, eta gerra aurretik eta diktaduran ere egin zen Euskal Herrian komikirik. Egun, euskal historia komiki bidez

Urriaren 13tik 19ra komikiari buruzko erakusketa ikusgai Gurean

KOMIKIAK, ILUSTRAZIOA ETA HIZKUNTZA IDATZIA ERABILTZEN DITUEN ARTEAK, 100 URTE BETE ZITUEN IAZ. URTEMUGA HORI APROBETXATUZ KOMIKIARI BURUZKO ERAKUSKETA IBILTARI BAT IBILI ZEN IAZ HERRIZ HERRI, AURTEN ORAINDIK BADABIL, ARTE EZEZAGUN HAU HERRITARREI EZAGUTZERA EMATEKO ASMOTAN. BILLABONARA IRITSI DA ASTE HONETAN ERAKUSKETA, ETA BERAZ, ARTE EZEZAGUN NOLA XARMANGARRI HONEN BERRI IZATEKO BADA KIZU NORA JO.

azaltzen dituen lan ugari dago. Horrez gain, komikiz heteriko fanzine ugari argitaratzen da Euskal Herrian:

Napharteid, TMEO... Beraz, nahiz eta nahikoa

ezezaguna izan, Euskal Herrian egiten da komikirik. Bestalde, komikia haurtzaroarekin lotzen delako, euskara normalizatze-ko baliabide mo-

duan erabili izan da komikia, eta horren adibideak ikusgai daude erakusketan.


Komikiaren lengoia bakarra da hizkuntza guztietan. Hots, ingelesez edota euskaraz egiten diren komikiek binetak, hitzak eta el-karrizketak agertzeko egiten diren globoak eta baliabide gehiago, igoal-igoalak dituzte. Lengoaia berri horrek zinematik eta telebistatik hartzen ditu egun erabiltzen dituen hainbat espresio bide.



KOMIKIARI BURUZKO BIDEOA

Komikiaren erakusketa dibertigarria eta erakargarria da oso, komikia bera bezala, eta adin guztietako herritarrek ikusteko modukoa da. Komikia egiteko jarraitu beharreko prozesu guztia azaltzen da erakusketan: oinarizko gidoia, komikiaren lehenengo zirriborroak, pertsonaiak nola irudikatzen diren e.a. Komikia lehenengo eta behin arkatzez egiten dutela, gero tintaz pa-

satzen dutela, guztia koloreztatuta eta inprentara eramanez aurretik testua idazten dutela argi eta garbi azaltzeko azalpenak daude erakusketan. Azkenik, komikilarien lana pausuz pausu nola den ikusteko Marko Arsprachek, Juan Luis Landak eta Anton Olariagak bere lana nola burutzen duten azaltzen dute bideo batean.



MARTIN UGALDEREN OMENALDIAREN ATARIAN

URRIAREN 31TIK AZAROAREN 9RA IZANGO DIRA EKITALDIAK

Amaitu dituzte prestakizunak Andoaingo Udalak eta Larramendi Kultur Bazkunak datoren urriaren 31tik azaroaren 9ra bitartean omenaldia eskaintzeko Martin Ugalde idazle eta kazetari andoaindarrari. Zortzi egunetan zehar ahalegin berezia egingo dute antolatzaileek azpimarratu dituzten bi helburu nagusiak betetzearren: lehena, Ugalderi jaioterriaren eskerrona adieraztea. Bestetik, herritarren artean Martinen obra gehixeago ezagutzera ematea, 35 obra inguru idatzi baitu, kontutan hartu gabe beste autore batzuekin elkarlanean ugari plazaratu duena.

UGALDERI BURUZKO ERAKUSKETA IKUSGAI IZANGO DA KULTUR ETXEAN

Urriaren 31n emango zaio hasiera Andoaingo Udalak eta Larramendi Bazkunak elkarrekin antolatu nahi izan duten omenaldiari. Egun horretan, pisu handiko ekintzak izango ditugu Urigain Kultur Etxean: lehenengoz eta behin Martin Ugalderen omenez Andoaingo Udalak deitu dituen hiru lehiaketetako sariak emango dira ezagutzera: ipuin lehiaketakoa, "Andoain eta Martin Ugalde" erreportai lehiaketakoa, eta bideo lehiaketakoa. Ondoren, Aiurri aldizkariaren zenbaki berezia aurkeztuko da, oso-osorik Martini buruzkoa, bere bizitzaren eta langintzaren berri emango duena argazki ugariz hornitua 100 orrialdetan. Jone Larrañaga kazetariak landu du Aiurriren zenbaki berezia, eta "lan luzea, baina oso atsegina izan da. Izan ere uste baino bihurtu eta zoko gehiago aurkitu dut eta horietako bakoitza esperientzia berri bat izan da, testigantza aberatsa, lan berri batera ninderramana" adierazi digu Jonek. Herri askotan zabalduko da aldizkari hori, euskara elkarrekin bidez egingo den 4.000 aleko banaketa berezitu batez. Urriaren 31ko azkenekoa, Urigain



Kultur Etxean inauguratuko den erakusketa izango da, Martinen bizitza eta obrari buruzkoa. Udaleko Kultura Batzordearen ekimena da erakusketa, paneletan argazki eta testu laburrez Martinen berri emango diguna; bere obra oso-osoa ere bertan ikusgai izango da. Arrasateko Hurbil etxea arduratu da erakusketa antolatzeaz Xabier Urdangarín andoaindarrak idatzirik gidoiari jarraiki. Urriaren 31tik azaroaren 9ra bitartean erakusketa egunero cgongo da zabalik.

VENEZUELAKO LAURENTZI ODRIOZOLA KAZETARIAK HITZALDIA ESKAINIKO DU HILAREN 4EAN

Zortzi egun horietan Martinekin zuzenean zerikusirik duten bideoak erakutsiko dituzte Urigain Kultur Etxean: batetik Martinek Euskal Telebistan aurkeztu zuen *Euskaldunek hitza* sailleko sei elkarrizketa ikusi ahal izango dira: Joxemiel Barandiaran, Manuel Lekuona, Teodoro Hernandezena, Koldo Mitxelena, Iratzeder eta Iñaki Azpirozuri egindakoak. Bestetik, "Gernika, arbolaren izpiritua" dokudrama ikusi ahal izango da, zeinean Martinek parte hartu baitzuen.

Hitzaldiak, berriz, hirutara mugatu dituzte antolatzaileek. Lehen ere Ugalde maiz hizpide izan duten Anjel Lertxundik eta Jose Angel Ascuncek Ugalde literatur idazlea aztertuko dute. Joan Mari Torrealdaik, bestetik, ikuspegi zabalagoz jokatu beharko

du, ezinbestez, Ugalde kazetari eta herri gizonaren zertzeladak azaldu ahal izateko. Oso garrantzi berezia hartu du lehenengo eguneko hitzaldiak, "Martin Ugalde y Venezuela: en busca de una patria en libertad" izenekoa, Ugalderen Venezuelako 22 urteko bizialdiaz hitz egitera bertako Valencia hiritik Laurentzi Odriozola kazetaria etorriko baita. Laurentzi Odriozola Caraboboko estatuko hiriburu den Valencian dihardu *Notitande* egunkariko erredakzio-buru.

Martinek berak ez dio hutsik egin nahi izan Andoainen prestatu zaion omenaldiari eta bere ekarpena egin nahi izan du, bere ipuin liburu berriaren argitalpena aurreratuz Andoaingo omenaldirako. Erein argitaletxeak plazaratuko dion liburuak *Erretiradaren tren* du izenburua, eta Gerra zibileko erretirada du ardatz eta berriz ere protagonista nagusi Andoain izanik.


OHOREZKO IZENDAPENAK UDAL ETA BAZKUNAREN ESKUTIK

Omenaldiari azaroaren 9an emango zaio amaiera. Egundeko horretan, meza nagusiaren ondoren, Udaltzarak aparteko bilkura egingo du Martin Ugalde Andoaingo Seme Kuttun izendatzeko. Hori da Udalaren alde-tik jaso litekeen saririk handiena. Ondoren, udaleko kideekin batera Martin Ugalde Borda jatetxean Larramendi Bazkunak antolatu duen bazkaria joango da. Hain zuzen ere bazkal ostean burutuko den ekitaldi batean, Larramendi Bazkuneko ohorezko lehendakari izendapena egingo diote Martin Ugalderi, horrela amaiera emanez egun horretako ospakizunci.

Bestetik, Aiurrik jakin ahal izan duenez, Udalak Ugalde Andoaingo Seme Kuttun izendatzearekin batera bere izena herrian eratzekoak diren kale berrietako zeini eman erabakiko du.

LARRAUL

Idi apostua 1956.



Ezkerretik eskuinera: Antonio Azkue, Joxe Azkue, Sabino Jauregi, Bernardo "zarautarra", Eulogio Iraola, Caslor Gaztañaga, Juan Urdangarin, ezezaguna, Inazio Urkola, Bautista Kortajarena eta Manuel Seguroa.

Argazkia Tolosako zezen plazan ateratakoa da, baina argazkian ageri diren gizonetzkoak ez dira Tolosakoak. Larraulgoak baizik.

Joxe Azkuek esan dizkigu beraien izen-abizenak, bera ere idi apostu horren lartean ibilitakoa baita. Joxe Azkuerenak ziren 1.710 kilogramo pisatzen zuten idiak, eta idiek plazan arrastaka ibili zuten harria berriz, 3.200 kilokoa zen. Plazari 46 buelta eman eta 180 metro gehiago egitea lortu zuten 40 minututan aipaturiko idiek. Larrauldarrei harro egoteko arrazoirik ez zaie faltako ez!

Oharra: Etxeko ganbaran edota zapata kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aiurrin ikusi argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat atera eta zuen informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



ALBA

aseguroak

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

**Hilero auto baten aseguru-
ria zozketatzen dugu!**

**MARIAJE GANBOA
ANDOAINGO ANBULATEGIKO
ERIZAINA**



Z
E
R

B
E
R
R
I

- Zer da C meningitisa?

Meningitisa meningeko inflamazioa da. Meningea berri, burmuina eta bizkarrezur-muina estaltzen duen geruza da. Kutsa daitekeen gaixotasuna da meningitisa. Kalentura altua, buruko mina, garondoko gogortasuna eta azalean agertzen diren petekias izeneko mantxa gorriak dira, besteak beste, meningitisaren ezaugarriak.

- Zein iraupen du meningitisaren kanpainak?

Nahiz eta gaixotasun horren epidemiarik ez den eman, Osakidetzak C meningitisaren aurkako txertoa ematea erabaki du Euskal Herri osoan. Kanpainaren iraupena sei astetako da; irailaren 15etik urriaren 30a bitartekoa, hain zuzen ere.

- Nori dago zuzenduta?

Gaixotasuna izateko arrisku gehien kontsideratzen den taldeari zuzendua dago kanpaina. Hau da, 18 hilabeteko haurrekin hasi eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago kanpaina. Urte sasoiari dagokionez, udazkena eta udaberri bitartean bakunatu ohi da, izan ere, udaran ez baita hain normala gaixotasun hau izatea.

- Zeinbat pertsonak hartu du txertoa orain artean?

Ikasleak beren ikastetxetan bakunatu ohi dira. Beraz, anbulategian ikasten hasi ez diren haurrak edota ikasten utzi eta etxean edota lanean dauden gazteak bakunatzeko ordutegia finkatu dugu, eta beraz, aldeztu aurretik txanda eskatu behar izaten dute. Nahiz eta kanpaina ez den amaitu, orain arte 190 gazte eta 60 haur inguru bakunatu ditugu eta bakunatu diren pertsona horiek txertoa hartu izanaren egiaztagiria jasotzen dute.

- Urtero hartu behar al da txertoa?

Aurten lehen aldia izan da eta oraindik ez dakigu hurrengo urteetan kanpainak jarraipenik izango duen. Hori bai, hurrengo urteko ekainerako 18 hilabete beteiko dituzten haurrak ere kanpaina horren barruan sartuko dira.

- Txertoak erreakziorik sortu al du jendearengan?

Ez da erreakziorik ezagutzen. Gerta daitekeen gauza bakarra, bakuna jasotako alderdia zertxobait gorria edota gogorra egotea da.



Hona hemen berriro gure lehiaketa. Asmatu behar duzuen txokoa ezaguna da oso. Norbaitek bertsoak ere atera dizkio zuhaitz horri. Nahiz eta orain fruiturik ez izan, garai batean zuhaitz eder eta emankorra izan zen. Zizurkilgo

ogi berezi eta
artesanak
etxerainako
zerbitzua

OKINDEGIA, S.L.
Zuzendaria: J. L. Mendizabala
20100 ANDOAIN (NS) - 493294 - 4001299

OGI • GOXO

• TARTAK • IJITO BESOA • PASTELAK
• TELAK-ZIGARRILOAK
• HOJALDREAK • MAGDALENAK

Kale Nagusia, 26 - Tel. 693294 - BILLABONA

paraje polit batean aurkitzen da eta ondo begiratu gero, atzeko aldean aurkitzen den etxea eta plakak pista handia eman diezazuke. Beraz, animatu eta idatz ezazu!

Saria bikaina da oraingoan ere: **Billa-bonako Ogi-goxo okindegiak "etxeko produktuez osatutako sorta"** eskaini du oparizat.

Lehiaketan parte hartu nahi duzuenok bidal itzazue zuen gutunak honako helbidera lehenbailehen: **Aiurri aldizkaria, Doktor Huizi 15, 1 eskubia. 20.140 Andoain.** Idatz ezazue zuen telefonoa zuekin harremanetan jartzeko.

MUSIKA

ANDOAIN

Urriak 26: Gaztedia batzordeak antolatuta Egan taldearekin dantzaldia. Bekoplazan arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara.

ERAKUSKETA

ANDOAIN

Urriak 17-26: Kultura batzordeak antolatuta "Nola egiten da liburu bat" erakusketa Urigain Kultur Etxean.

HITZALDIAK

ANDOAIN

Urriak 21: Patxi Zubizarretak "Idazlea liburuaren aurrean" hitzaldia eskainiko du. Urigain Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.

Urriak 24: Víctor Morenoren "¿Por qué leer?" hitzaldia. Urigain Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etan.

ASTEASU

Urriak 22: Lurdes Aritziturrik bularretako minbiziari buruzko hitzaldia emango du. Lizardin arratsaldeko 17:30etan.

Urriak 29: Lurdes Aritziturrik minbizi ginekologikoa eta menopausia hitzaldia eskainiko du. Lizardin arratsaldeko 17:30etan.

ANTZERKIA

ANDOAIN

Urriak 25: Kultura Batzordeak antolatuta Tanttaka taldearen "Shakespeare osoa" antzezlan. La Salle antzokian, arratsaldeko 20:00etan.

HAUR ANTZERKIA

ANDOAIN

Urriak 26: Gus taldearen "Marrubizko printzesa" antzezlan. La Salle antzokian, arratsaldeko 18:00etan.

MARTIN UGALDERI OMENALDIA

ANDOAIN

Urriak 31-azaroak 9: Andoaingo Udalak antolatuta, "Martin Ugalde: bizitza eta obra" izeneko erakusketa. Urigain Kultur Etxean. Lanegunetan 18:00etatik 20:30etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara.

Urriak 31: Larramendi Bazkunak antolatuta, "Gernika: arbolaren izpiritua" dokudramaren emanaldia Urigain Kultur Etxean.

IPIIN KONTAKETA

ANDOAIN

Urriak 20: Kultura Batzordeak antolatuta 5 urtetik 8 urte bitarteko neska mutikoentzat ipuinen kontaketa euskaraz. Udal Liburutegiko haurren gelan, arratsaldeko 18:00etan. Ipuin-kontalaria Itziar Zubizarreta.


Urriak 24: Kultura Batzordeak antolatuta 8 urtetik 11 urte bitarteko neska mutikoentzako ipuinen kontaketa euskaraz. Udal Liburutegian arratsaldeko 18:00etan. Ipuin-kontalaria Itziar Zubizarreta.

MERKATU TXIKIA


ANDOAIN

Aletxeroak eta Kamisetak salgai: IZAR emakumezkoen lehen lagunarte errealistik errealaren kamisetak eta lagunartearen metxeroak jarri ditu salgai. Informazio gehiagorako deitu 59 14 80 telefonora (gauzez) eta Maider eskatu

KOMIKIA



EUSKADIKO KUTXA



"Joan den egunean gaueko 9etan deitu nuen, zeuden ala ez jakin gabe, eta andereño adeitsu batek 10ak arte egoten zirela esan zidan".

"Nire libretatik nire semearen kontura 10.000 pta. pasatu behar nituen".


"Oso atsegina zen eta zelako ondo azaldu zidan! Gainera dena oso azkar egin zuen".

"Oso gustura nago Tebankarekin, oso erraza delako, sukurtsalean bezalaxe hain zuzen".



Hari gabeko 25 Telefono zozketatzen ditugu hilero.

Orain Euskadiko Kutxaren sukurtsal telefonikoa den Tebankaren 901-333 444 zenbakira deitzeagatik baino ez, Hari gabeko Telefono bat lortu dezakezu. Hilero 25 zozketatzen ditugu, irailen, urrian eta azaroan. Hotsegizu nahi duzunerako: saldoa kontsultatzeko, transferentzia bat egiteko. Eta oraindik txartelik ez baduzu, eska ezazu baita 901-333 444 zenbakian ere.



Telebanka
901-333 444


CAJA LABORAL
EUSKADIKO



SEGURURA ZATOZ

-  Obra gabeko instalazioak,
-  kualifikatutako eskulanarekin,
-  zuen beharretara egokituaz.
-  Finantziaketak errazten ditugu.



BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

 **Kidegas, S.L.**
GASA ETA BEROGINTZA



DOHAINIKO DEIA

900 121 775

KONPROMEZU GABEKO AURREKONTUA ESKA

 **Kidegas, S.L.**
GASA ETA BEROGINTZA

Ama Kandida etorbidea, z/g
Industrialdea DENAC - Pab. 302
20140 ANDOAIN



Andoaingo bulegoa zure zerbitzura

"la Caixa"

BARTZELONAKO
PENSIO ETA AURREZKI KUTXA



Juan Bautista Erro, 8 behea
20140 ANDOAIN
Tel. (943) 59 23 00 - 59 25 61
Faxa: (943) 59 19 12

AZKAIN



Motoak

APRILIA
HONDA
YAMAHA
KAWASAKI
SUZUKI



- ➔ Motorrerako behar duzun guztia
- ➔ Motore azterketak
- ➔ Mota guztietako Scooterrak
- ➔ Salmenta eta konponketak

B° Ubillos, Pol. 56-N°12 20140 Andoain
Tel./Fax: (943) 591413

Istuitza Garden

Karrika 9 -ANDOAIN
☎ 59 24 48

Santu Guztien egunerako lore au- kera zabala

- Lore naturalak eta artifizialak
- Landareak
- Lorontziak
- Lurra
- Ehizatxakurrentzako janari berezia